

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jaione Isazelaia Igartua

*Bergara,
Gipuzkoa
(1959)*

Aurkibidea



Biografia



Arrasaten jaioa, Isazelai baserrian. Aita Arrasatekoa zuen eta ama, berriz, Oñatiko Araotz auzokoa. 8-9 urte zituenean kalera joan ziren bizitzera, Arrasaten. Eskolan hasi zenean euskaraz bakarrik zekien eta gurasoei umeari gaztelaniaz egiteko esan zioten. 1986an Bergarako Aldai auzora joan zen bizitzera, ezkonduta. Hiru alaba izan zituzten. Magisteritza ikasi zuen eta Osintxuko ikastolan hasi zen lanean. Ondoren Aranzadi ikastolan ibiliko zen, erretiroa hartu arte. Historia eta geografika ikasketak ere egin zituen, eta azken urteetan historiako irakaslea izan zen. Bergarako euskararen historiari buruz elkarrizketatu dugu, II. Errepublikako eta gerra sasoiko udalkideen jarrerei buruz egin zuen tesina bati buruzkoak kontatu dizkigu.

Zintak

BER-379

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2024-07-23
- **Iraupena:** 133 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Arrasateko Isazelaia baserrian jaioa

- **Erref:** BER-379/002
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:00:28. **Bukatu:** 00:01:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Arrasateko Isazelai baserrian jaio zen. Zortzi bat urte zituela, Fagorri baserria eta lurrak saldu zizkieten. 1986tik aurrera Bergaran bizi da.

2. II. Errepublikaren aurreko epealdia; nazionalistak, EAJ

- **Erref:** BER-379/004
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:03:23. **Bukatu:** 00:06:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Gerra aurea

Laburpena:

II. Errepublikako eta Gerrako garaia ikertu ditu gehienbat Jaionek. II. Errepublikaren aurreko epealdiaren laburpen bat egiten du. Errepublika sortzeko, Donostiako paktua antolatu zen eta EAJ-k ez zuen bertan parte hartu, erlijioaren kontua zela eta.

3. Bergara inguruan karlistak nagusi

- **Erref:** BER-379/005
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:06:54. **Bukatu:** 00:08:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- Politika » Gerra aurea

Laburpena:

Bergara ingutuan, karlismoa zen nagusi, arrazoi ekonomikoak zirela eta. Karlistak oso euskaltzale eta abertzaleak ziren jatorriz.

4. II. Errepublikak aldaketa handia ekarri zuen udaletxeetan

- **Erref:** BER-379/007
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:08:35. **Bukatu:** 00:11:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- Politika » Gerra aurea

Laburpena:

II. Errepublikaren aurretik, hezkuntza eta orokorrean burokrasia gaztelaniaz zen. Bergara, landa-herri bat izanik, euskalduna zen baina ikasteko aukera zutenek (fraideekin, seminarioan...) gaztelaniaz egiten zuten. II. Errepublikak, ordea, hainbat aldaketa ekarri zituen udal-gobernuetan.

5. 1931ko hauteskundeak; Lizarrako estatutua eta Konstituzio berria

- **Erref:** BER-379/009

- **Iraupena:** 0:05:18. **Hasi:** 00:12:10. **Bukatu:** 00:17:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Hauteskundeak
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Bergaran eta orokorrean Gipuzkoan 1931ko hauteskundeak nola bizi izan ziren kontatzen du Jaionek. Leku batzuetan, Bergaran barne, karlistek langileengan presio handia egin zuten eta bozkaketak errepikatu egin behar izan ziren. Hauteskundeen emaitzak. Lizarrako estatutua eta Estatutuko konstituzio berria.

6. II. Errepublikak euskara bultzatu nahi izan zuen

- **Erref:** BER-379/010
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:17:28. **Bukatu:** 00:20:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

II. Errepublikako konstituzio berrian, estatuko hizkuntza guztiak landu nahi ziren eta hori hezkuntzarne bitartez egin nahi zen. Horrez gain, herritarren kultura eta hezkuntza-maila hobeto nahi zen. Hezkuntzan ez ezik, medikuek eta udal-langileek euskaraz jakitea ere baldintza bat zen. Bergaran plaza bat betetzeko prozesua nolakoa izan zen kontatzen du.

7. Bergaran, gerra aurreko lehenengo ikastola euskaldunak

- **Erref:** BER-379/012
- **Iraupena:** 0:05:02. **Hasi:** 00:21:24. **Bukatu:** 00:26:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Katalunia izan zen lehenengo estatutua egin zuena eta bertan, besteak beste, hezkuntza katalanez bermatzeko ekimena. Euskadin, ordea, ez zen gerra hasi arte estatutua lortu. Hala ere, Bergaran hezkuntza euskaraz jasotzeari garrantzi asko eman zitzaion eta udalarenak ziren eskolak sortu ziren (eskola nazionaletatik garatago). Maria Oianguren izan zen lehenengo irakaslea. Batzokian zabaldu zen lehenengo ikastola eta gerra hasi zenean irakasleek ihes egin behar izan zuten eta bertan zegoen material guztia suntsituta gelditu zen.</p>

8. Gerra hastean, 4000 bergararrek ihes egin zuten

- **Erref:** BER-379/014
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:26:36. **Bukatu:** 00:29:16

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

<p>Maria Oianguren, Bergarako lehenengo ikastolako irakaslea, gerra hasi zenean Belgikara ihes egin zuen bere ikasle batzuekin. Bertan, Amberesko alkatearekin eta haren alabarekin oso harreman handia egin zuen. Bergaratik 4000 pertsona inguru exiliatu zen inguruko herrialdeetan. Errusiara, normalean herri sozialista eta errepublikanoetako biztanleak joaten ziren, baina Bergaran karlistak ziren.</p>

9. II. Errepublikan, irakasle formatuen bila

- **Erref:** BER-379/016
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:30:07. **Bukatu:** 00:31:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Franco hil ondoren tituludun irakasle asko falta ziren bezala, II. Errepublikan berdina gertatu zen.

10. Bergarako karlistak, euskaltzaleak

- **Erref:** BER-379/017
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:31:38. **Bukatu:** 00:33:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

<p>Karlistak hain euskaldunak ez zirela pentsatu da beti, gerra hastean altxatuen alde jarri zirelako. Bergarako udaleko agirietan, ordea, karlistek hezkuntza euskaldunerako lan egin zuten.</p>

11. Ruiz de la Prada alkatea; euskaltzale izatetik, herritarrak salatzerara

- **Erref:** BER-379/018
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:33:44. **Bukatu:** 00:37:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

<p>Ruiz de la Prada, Bergaran zinegotzi monarkikoa izan zen II. Errepublikan. Gerra gasteen, alkatea izendatzen dute eta euskara, euskal kultura eta euskal estatutuaren alde hitz egin zuen. Hala ere, tropak sartzean bere diskurtsoa guztiz aldatzen da eta kolpistei laguntzea da bere helburua, gehienbat salaketak burutuz. Gerra aurretik, udal-kideen helburua beti da Bergara herri bezala garatzea. Gerra ostean, Espainia garatzea.</p>

12. II. Errepublikako eskoletan euskaraz hitz egin baina gaztelaniaz idatzi

- **Erref:** BER-379/020
- **Iraupena:** 0:05:12. **Hasi:** 00:37:57. **Bukatu:** 00:43:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

II. Errepublikak, kultura modu-ibiltari batean landa-eremuetara eraman zuen, baina Euskal Herrian ez zen horrenbeste egin. Garai hartan, denek euskaraz zekiten baina ez zegoen euskara normalizatzen zuen tresnarik, beraz ez zegoen euskaraz alfabetatzeko aukera handirik.

13. Arabara gaztelaniaz ikastera

- **Erref:** BER-379/021
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:43:09. **Bukatu:** 00:46:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gerra aurretik, gurasoek haurrentzat nahi zuten premia handienetarikoa bat, gaztelaniaz hitz egiten, irakurtzen eta idazten ikastea zen, nahiz eta euskal kultura eta historia ere ikasi. Guraso batzuk, haurrak Arabara bidaltzen zituzten gaztelania ikastera, gero goi-mailako ikasketak egiteko aukera izateko

14. Bergaran jesuitak kanporatuak izan zirenean

- **Erref:** BER-379/022
- **Iraupena:** 0:04:32. **Hasi:** 00:46:54. **Bukatu:** 00:51:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>II. Errepublikako konstituzioak, eliza eta hezkuntzaren arteko banaketa ezarri zuenean, Bergaran seminarioan zeuden jesuitek ez zuten aginduari

kasu egin eta herritik bota zituzten. Ondorioz, Bergaran liskar handiak sortu ziren eta ikasleak barnetegietara eta batez ere, Oñateko institutura joan ziren ikastera. Bidaia-gastuak ordaintzeko, Bergarako udalak lan handia egin zuen. Erlijioari garrantzi asko ematen zitzaion Bergaran.

15. Bergaran tropak sartu zirenean gertatutakoa

- **Erref:** BER-379/024
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:51:54. **Bukatu:** 00:54:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

Bergaran altxatuen tropak sartu zirenean, udaletxean sartu eta bertatik frontea eta herrian errepresioa antolatzen hasi ziren. Inguruko herri guztiak okupatu zituzten, Eibar eta Elgeta izan ezik. Ikastolara joan ziren eta bertako material guztia erre zuten.

16. Ruiz de la Prada, Bergarako lehenengo gerrako alkatea

- **Erref:** BER-379/025
- **Iraupena:** 0:04:47. **Hasi:** 00:54:08. **Bukatu:** 00:58:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

Gerra hastean, Ruiz de la Pradak errepresioari ekingo dio. Garbiketa bat egin zuen, nazionalen fidelak izan zirenak sarituz eta besteak traidore bezala identifikatu zituen eta ondorioz, zigortu. Gerra hasieran herritik joan eta gutxira bueltatu nahi zutenek, idatzi bat aurkeztu behar zuten. 1940ko dokumentu batean, Ruiz de la Prada alkatea aldunditik botatzeko proposamena egiten dute, Bergaran egin zituen ekimengatik. Ondorioz, Bergarako errepublikak ezarritakoa izan zen.

17. Ruiz de la Prada alkatearen bando-aldaketa

- **Erref:** BER-379/026
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:58:55. **Bukatu:** 01:02:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Herrira itzultzeko, gutun bat idatzi behar zituzten herritarrek, gobernua edo bakoitzaren ideologia zurrizten. Abertzalea izatea zigortua zegoen, baina "baskista" izatea ez. Kasu batzuen adibideak ematen ditu. Ruiz de la Prada alkatearen bando-aldaketa.

18. Gerrako errepresioa: emakumeei eginiko zigorrak

- **Erref:** BER-379/027
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:02:16. **Bukatu:** 01:04:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Emakume errepublikano eta abertzaleak zigortzeko metodo nagusienak, ilea-moztea eta errizino-olioa ematearena ziren.

19. Gerrako errepresioa Bergaran

- **Erref:** BER-379/030
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:04:43. **Bukatu:** 01:06:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerratik itzuli ziren ama-alaba errepublikano batzuei, haien Barrenkaleko etxeko balkoiko bandera errepublikanoen zati moreari oihal gorria jostera eta beti balkoian eskegita izateari behartu zituen Ruiz de la Prada alkateak.

20. Francoren mitina Bergaran

- **Erref:** BER-379/031
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 01:06:19. **Bukatu:** 01:08:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>Moscardó generala Bergaran egon zenean, Komenio kaleari bere izena jarri zioten. Gerra amaitzean, Franco Bergarara joan zen eta ohorezko alkate izendatu zuten.</p>

21. Abertzale eta errepublikanoen desadostasun handiena erlijioa zen

- **Erref:** BER-379/032
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 01:08:06. **Bukatu:** 01:11:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak

Laburpena:

1931ko apirilaren 12ko udal-hauteskundeen ondorioz, azkar batean sortu

behar izan ziren gobernuak. Euskal estatutua sortzea zaila izan zen, tirabira eta desadostasunak zeudelako alderdi politikoen artean. Estatutua sortzea eta sinatzea lortu zen, EAJk errepublikanoen aldera jo zuenean. Gerra hasi zenean, inork ez zuen uste asko iraungo zuenik, Azkar itzaliko zen altxamendu baten aurrean zeudela uste zuten. Abertzaleak eta errepublikanoen ideologiaren desadostasun handiena, erlijioan zegoen.

22. 1931ko Lizarrako estatutua

- **Erref:** BER-379/033
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 01:11:58. **Bukatu:** 01:13:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

1931ko Lizarrako estatutan eta errepublikako konstituzioaren arteko ezberdintasun handiena erlijioa izan zen. Bergarako udalean, Lizarrako estatutuan jaso ziren ekimen asko eraman ziren aurrera, nahiz eta ez ziren ofizialak.

23. Emakume abertzale eta karlisten euskarazko antzerkiak

- **Erref:** BER-379/036
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 01:15:49. **Bukatu:** 01:16:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan
- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

Laburpena:

Bergarako Emakume Abertzale Batzak, antzerki eta kultura ekitaldi ugari antolatzen zituen euskaraz. Margaritek ere (karlisten emakume taldeak) euskaraz antolatzen zituzten antzerkiak.

24. Entretenimenduaren bidez, atxikimendu politikoa lortzea

- **Erref:** BER-379/037
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 01:16:58. **Bukatu:** 01:19:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Musika
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Antzerkia, transmisio-modu oso garrantzitsutzat hartzen da, eta nazionalismoa indartze prozesuan, erabakiorra izan zen jendea entretenitzea, haien atxikimendua lortzeko. Txistularien-banda.

25. Euzko Nekazari Bazkunaren eskaerak

- **Erref:** BER-379/039
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 01:20:10. **Bukatu:** 01:23:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Euzko Nekazarari Bazkunak, baserritarren batzarrak, Bergaran egindako eskaerak ahalbidetu izan zituen II. Errepublikarekin.

26. Bergarako errepublikanoak

- **Erref:** BER-379/041
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 01:23:30. **Bukatu:** 01:25:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak

Laburpena:

Bergaran, errepublikano gutxi zeuden baina oso gogor lan egiten zuten. Behin, Eibartik errepublikano batzuk joan ziren Bergarara eta sekulako liskarra sortu zen. Hildako bat ere egon zen.

27. Gerrako galtzaileen eta irabazleen arteko lubakia

- **Erref:** BER-379/043
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 01:26:29. **Bukatu:** 01:28:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

II. Errepublika bukatzean, garbiketa handi bat ematen da eta gelditzen direnak, mugimendu nazionalari guztiz fidelak dira. Lanpostu askotarako, langileak agiri bat izan behar zuen, non esaten zen guztiz fidela zela erregimenari. Arrasateko irakasle batek, Bergarako beste bateri buruz gaizkiesaka dabilen dokumentu bati buruz hitz egiten du Jaionek. Galtzaileen eta irabazleen arteko lubakia oso handia zen.

28. Gerrako galtzaileentzat lanpostu txarrenak

- **Erref:** BER-379/045
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 01:29:00. **Bukatu:** 01:30:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerrako bando galtzaileak, lanpostu txarrenak izaten zituzten arren, Eskoriatzako Segundo Iriarte ehulegileari ondo joan zitzaion.

29. Errepublikari eta gerrari buruz hitz egiteko beldurra

- **Erref:** BER-379/047
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 01:31:03. **Bukatu:** 01:33:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Euskal Herrian ez horrenbeste, baina gerrako galtzaileetako asko maki bihurtu ziren eta gero II. Mungu Gerran ere ibili ziren faxismoaren kontra. 1939an erantzunkizun-politika legea ezarriko du Francok, eta honek, edozein epaitzeko aukera ematen zion 1934ko iraultzatik egindakoengatik. Ondorioz, jende askok ez zuen garai horri buruz hitz egin nahi izan bere bizitza guztia. Beldur handia zegoen.

30. Gerraosteko Gariaren Zerbitzu Nazionala

- **Erref:** BER-379/048
- **Iraupena:** 0:04:18. **Hasi:** 01:33:45. **Bukatu:** 01:38:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

40. hamarkadako lehen erdian, gosea izan zen nagusi. Gariaren Zerbitzu Nazionala zer zen. Baldintza asko zituen legea zenez, abadeak meza ostean azalpenak ematen zituen.

31. 1934ko iraultzaren kronologia

- **Erref:** BER-379/049
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 01:38:03. **Bukatu:** 01:41:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

1934ko iraultzaren aurrekariak, gertakariak eta ondorioak.

32. 1934ko iraultza Eibarren eta Arrasaten

- **Erref:** BER-379/051
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 01:41:10. **Bukatu:** 01:44:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

1934ko iraultza oso gutxi sumatu zen Bergaran., baina Bergaran eta Eibarren asko. Eibarren borrokak egon ziren eta asko preso egin zituzten Iruñeako espetxean. Arrasaten borroka gutxiago egon arren, bi hildako egon ziren, haietako bat Union Cerrajerako nagusi bat. Espainiako espetxeak bete egin ziren preso. 1936ko hauteskundeak Frente Popularrak irabazi zituen eta 1934ko iraultzako preso guztiak amnistiatu zituzten

33. Emakumeen boto-eskubidearen auzia II. Errepublikan

- **Erref:** BER-379/053
- **Iraupena:** 0:05:06. **Hasi:** 01:45:50. **Bukatu:** 01:50:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- Politika » Hauteskundeak
- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan

Laburpena:

1933an emakumeek lehengo aldiz bozkatu zuten, baina Frankismoarekin eskubidea galdu zuten. Euskadiko kasuan, ordea, estatutuko hauteskundeetan ere parte hartu zuten. II. Errepublikan, emakumeen boto-eskubidearen auzia ez zen erraza izan, bi alderdi ezberdin zeudelako, bata Clara Campoamor-ena eta bestea Victoria Kent-ena. 1933ko hauteskundeetan, eskumak irabazi zuen eta emakumei leporatu zitzaien, nahiz eta ezkerrekoen banaketak izan errua.

34. Euskaraz irakasteko lehenengo materialak

- **Erref:** BER-379/055
- **Iraupena:** 0:06:47. **Hasi:** 01:51:24. **Bukatu:** 01:58:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

Bergarako Udalak, euskarazko klaseak ematen zituzten irakasleei ematen zitzaien diru-laguntza baten agiriak aurkezten ditu Jaionei. Maria Oianguren izan zen lehenengo irakasle hura. Erabiltzen ziren euskarazko materialak: Xabiertxo, Zenbakiztia, Lutestegi berria, hiztegiak, mapak, Historia Vasca del padre Estella, Umearen laguna, Lege zahar eta berria... Material hauek 1933tik aurrera hasi ziren ofizialki diruz laguntzen, baina horrek ez du esan nahi aurretik ere ez zegoenik horrelakorik.

35. Gerraosteko salaketa eta zigor baten dokumentua

- **Erref:** BER-379/057
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 01:58:36. **Bukatu:** 02:01:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Ruiz de la Prada. Bergarako alkate frankistaren garaian, Emakume Abertzale Batzaren lehendakaria zen Rafaela Ezpeleta de Lizarralderen kontra egindako salaketa, epaiketa eta fusilamendurako zigorra jasotzen duen dokumentua irakurtzen du. Jaionek.

36. Jaione Isazelaiaren jardura profesionala

- **Erref:** BER-379/059
- **Iraupena:** 0:05:20. **Hasi:** 02:01:47. **Bukatu:** 02:07:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Etxean euskeraz hazi zen arren, eskolan hasi zenean gaztelaniantz jo zuen, eta nahiz eta euskara ulertzen zuen, ez zuen ezer hitz egiten. Eskoriatzan magisteritza ikasi zuen eta ikastolan urte batzuk lan egin zituen. Euskal filologia ikasteko grina sartu zitzaion baina Gasteizera joan behar zenez, Bergaran Geografia eta Historiako ikasketak egin zituen. 2011an, Ikastola Elkarteko materiala prestatzen zuen bitartean, Bergarako zinegotzi izendatu zuten eta bi urtetara, alkate. Bi urte alkatetzan egon ondoren, Geografia, Historia eta Euskarazko klaseak ematera bueltatu zen DBH-ra eta bertan erretiratu zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-07

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com